



KATEKISTEN TAILERRA

Katekisten Tailerra zonaka antolatutako topaketa, otoitz eta formazio-gunea da. Kristau sarbideko prozesuetan laguntzen duten pertsonen zuzenduta dago, laguntzen dituztenen adina edozein dela ere.

Haur eta Nerabeen Katekesirako Ordezkaritzaren, Helduen Kristau Sarbiderako Ordezkaritzaren eta Elizbarrutiko Formaziorako Ordezkaritzaren arteko lankidetzak sortu du proiektu hau, kristau sarbideak gure elkarteetako bizitzan duen garrantziaz jabetuta.

Katekisten Tailerrak hiru helburu nagusi ditu: katekistaren misioan eta bokazioan elkarrekin haztea, harremanak eta loturak berraitzea, eta zonetako lidergoak ezagutu eta sustatzea.

2026ko lehen hilabeteetan, ordezkariak artziprestaldetako apaizekin lan egin dute, Elizbarrutiko zonatan lehen topaketa bat egin ahal izateko.

Egindako lehen tailerra, «**Jainkoak harremanetara deitzen gaitu**» izenburua izan du. Otoitz giroan hasi dugu, 8. salmoaren irakurketa eginez. Salmoak Jainkoa miresmenez eta esker onez kontenplatzera gonbidatu gaitu: Jainkoak gizakiok sortu ez ezik, Berarekin batera senideekiko eta kreazio osoarekiko bere erantzukizuna partekatzen deitzen gaitu. Otoitzaren ondoren, aurkezpen labur batzuk eskaini dira: Jainkoak harremanetara deitzen gaituela esateak zer esan nahi duen eta dei horrek katekisten misiorako zer ondorio pedagogiko dituen azalduz.

Lehen tailerra Ekialde artziprestaldean egin zen; Errenterian, hain zuzen, otsailaren 19an, eta ondoren Irunen, maiatzaren 14an. Goierriko topaketa Lazkaon izan zen, martxoaren 26an; Beterrikoa, Tolosan, apirilaren 28an; Mendebaldekoa, Bergaran, ekainaren 20an; eta Donostiakoa, Seminarioan, ekainaren 27an. Oraindik badira iritsi beharreko zonak, ahalik eta katekista gehienek topaketa hauetan parte hartu ahal izan dezaten.

Jasotako balorazioak, oro har, oso positiboak izan dira. Bereziki nabarmendu dira elkartzeko eta hitz egiteko aukera, partekatutako otoitzaren balioa eta formazioa bera. Izan ere, formazio horrek eguneroko jardunean, batzuetan jakintzat emateagatik, ezkutuan gera daitekeena berriro lehen planora ekartzen laguntzen du.

Bihotzez eskertu nahi diegu topaketa hauek posible egin dituzten pertsona guztiei, baita ospatu diren zona bakoitzean jasotako harrera ona ere.

Lehen esperientzia honek, datorren ikasturtean proiektu honekin jarraitzea animatzen gaitu, aurten iritsi ezin izan garen zonetara iristeko interes bereziarekin.